

Prensa Oharra

Nota de Prensa

Donostia Klasikoak hirian eragingo dituen garraio eta trafiko neurriak

Uztailaren 30eko 09:00etatik uztailaren 31ko 20:30ak arte Boulevarda ibilgailuentzat guztiz itxita egongo da

Datorren uztailaren 31n, larunbatean, Donostia Klasikoa izeneko txirrindularitza lehiaketa burutuko da gure hirian. Emakumezkoen irteera 09:15ean izango da eta gizonezkoena 11:30ean. Hau dela eta, nagusiki gure hiriaren erdialdean eragin nabarmena izango duten ezinbesteko trafiko neurriak hartu beharrean dago Udala.

Ostiral honetan, uztailaren 30ean, 9:00etatik hasi eta uztailaren 31ko 20:30ak arte Boulevarda ibilgailuentzat guztiz itxita egongo da, Legazpi kaletik Hernani kaleraino.

Bestalde, lasterketaren egunean, uztailaren 31n, 7:30etik Colon pasealekutik, Boulevard, Hernani, Andia kalea eta Askatasunaren Hiribideraino zabalduko den eremua ere itxi egingo dira. Itxiera hau 20:00etara mantenduko da

Uztailaren 30ean, zamalanak 09:00etatik 11:30era baimenduko dira, baina ez 31n.

Bertakoak

Ostirala, 30

09:00h - 11:30h y 21:30h – 07:00h herritar guztientzat itxita egongo bada ere, eragindako egoiliarrei Boulevardetik sartzeko baimena emango zaie.

11:30h – 21:30h: honako ibilbidea egin beharko dute: Erregina Erregeordea - Boulevard - Legazpi - Peñafloida - Hernani - Ijentea – Kanpandegi.

Larunbata, 31

Sartzeko

07:00h eta helmuga desmuntaketa egin arte: Salamanca pasealekua - Soraluze – Abuztuaren 31 - Nagusia - Portu – Mari.

Ateratzeko

07:00h - 12:00h: Kanpandegi – Koruko Ama Birjina - Mari - Portu - Nagusia - Abuztuaren 31 - Soraluze - Aldamar – Zurriola.

13:30h – 16:00h: ibilbide arrunta.

17:30h - 20:00h : Kanpandegi - Koruko Ama Birjina - Mari - Portu - Nagusia- Abuztuaren 31- Soraluze - Aldamar - Zurriola

20:00etatik aurrera: ibilbide arrunta.

Prensa Oharra

Nota de Prensa

Uztailaren 31n

Pasealeku Berria

Pasealeku Berria trafikoari, oinezkoei eta bizikletei itxita egongo da 20:00ak arte. Itxiera Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen eraikinetik aurrera egingo da Aquariumera arte.

Gogoan izan, uztailaren 26tik Pasealeku Berria itxita dagoela bertan barraken gunea baitago.

Salamanca pasealekua

Ibaiaren aldean dagoen espaloia eta bidegorria erabat itxita egongo da oinezko eta bizikletentzat, Kursaleko zubitik Gipuzkoako Argazkilari Elkarteraino. Goizeko 8etatik arratsaldeko 19ak arte

Emakumezkoen lasterketa

Emakumezkoen lasterketaren irteera dela eta, 08:45etik 09:45era Boulevarda, Hernani kalea, Askatasun Hiribidea, Zubieta Antiguarentz abiatzerakoan, guztiz itxita izango da.

Lasterketaren iritsierak hiriko sarreretan aldizkako hainbat mozketak eragingo ditu: Ategorrieta, Nafarroa eta Zurriola Hiribideak, Zurriola zubia, Erregina Erregeordea, Zubieta, Zumalakarregi (Añorgarantz), Tolosa hiribidea (Añorgarantz), Igara eta Igeldo igoera eta jaitsiera. 11:30etik aurrera, trafikoa moztea aurreikusten da.

Mozketak eragin zuzena izango du garraio publikoan eta baita gainerako trafiko osoan ere.

Gizonezkoen lasterketa

Gizonezkoen lasterketaren irteera dela eta, 11:00etatik 12:00etara Boulevarda, Hernani kalea, Askatasun Hiribidea, Zubieta Antiguarentz abiatzerakoan, guztiz itxita izango da.

Lasterketaren iritsierak hiriko sarreretan aldizkako hainbat mozketak eragingo ditu: Ategorrieta, Nafarroa eta Zurriola Hiribideak, Zurriola zubia, Erregina Erregeordea, Zubieta, Zumalakarregi (Añorgarantz), Tolosa hiribidea (Añorgarantz), Igara eta Igeldo igoera eta jaitsiera. 15:30etik aurrera, trafikoa moztea aurreikusten da.

Mozketak eragin zuzena izango du garraio publikoan eta baita gainerako trafiko osoan ere.

Igeldo

Uztailaren 31n, larunbatean, Igeldora igo nahiz beheratzeko bideek trafiko mozketak jasango dituzte. Zehazki, trafikoa moztuta egongo da 11:30etik Igeldo, Cristobal Balenciaga eta Aita Orkolaga pasealekuetan erratz-autoa pasatzen den arte, 18:00ak

Prentsa Oharra

Nota de Prensa

inguru, bi norabideetan itxita egongo da. Dena den, bertan egongo diren Mugikortasun Agenteeek ibilgailuen zirkulazioa ahalbidetuko dute 14:00etatik 15:30ra.

TAO

Egoiliarrentzako Aparkaleku Bereizgarria (TAO txartela) duten hiritar guztiek, baimena izango dute beraien ibilgailuak aparkaleku mugatuko guneeetako edozein sektoreetan aparkatzeko, uztailaren 14tik abuztuaren 2ra, biak barne. Hauek destinoko eremuko TAO Txartela dutenen baldintza berdinak izango dituzte.

Hala ere, egoiliar hauek ezin izango dute beren ibilgailua dohainik aparkatu ordainketa nahitaezkoa den guneeetan (15 eremuko guneeetan) araututako ordutegiaren barnean.

Garraio publikoa

Hiriko autobusek aldaketak izango dituzte. (Dbusen prentsa-oharra erantsi da).

Lurraldebuseko autobusak, uztailaren 31n, ez dira Erdialderaino iritsiko:

- Ekialdetik datozenak Miracruz kaleraino iritsiko dira.
- Hegoaldetik datozenak . Astigarragatik iristen direnek Gernikako Arbolaraino eta Federico Garcia Lorca 2an izango dute geralekua.
- Aietetik iristen direnek Urbietan 38an izango dute parada.
- Mendebaldetik datozenak. Antigu-Amaratik Bizkaia Pasealekuraino iritsiko dira eta Federico Garcia Lorca 2an izango dute geralekua.

Taxiak

Ez da taxi geralekurik egongo Boulevardean.

Lurpeko Aparkaleku Publikoak

Donostia Klasikoa-ko antolakuntzak emandako informazioaren arabera hauek dira, uztailaren 31n, lurpeko aparkalekuek jasango dituzten aldaketak:

Boulevard Aparkalekua:

Sarbidea

Erregina Erregeordearen kalea eta Boulevarda itxita 11:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era.

Irteera

Boulevarda itxita 7:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era

Prensa Oharra

Nota de Prensa



Bertakoentzat Boulevardeko sarrera eta irteerak itxita 11:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era.

Alderdi Eder Aparkalekua:

Irteera

Hernani kalea itxita 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era

Sarbidea

Hernani kalea itxita 8:00etatik 20:00etara

8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era ezingo da aparkalekutik atera ala sartu

Kontxa Aparkalekua:

Sarbidea

Andia kalea eta Askatasun hiribidea: itxita 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era

Irteera

Miramar kalea eta Askatasun hiribidea: itxita 9:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era

Okendo Aparkalekua:

Sarbidea eta irteera

Erregina Erregeordearen kaletik itxita 11:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era

Donostia, 2021eko uztailaren 28a